

IKASLEEN HIZKUNTZA ERROREAK ETA HUTSEGITEAK: ZUZENTZEKO PROPOSAMENA

Students' Linguistical Errors: A Possible Way to Correct them

Kepa Larrea

*Hizkuntza eta Literaturaren Didaktikaren Saila / Departamento de Lengua y Literatura
Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea*

Resumen

El presente trabajo se basa en las consultas que los profesores y profesoras de distintas asignaturas nos hacen al profesorado de lengua. Muchas veces los profesores debemos corregir no sólo el contenido de los trabajos de nuestros alumnos, sino también la lengua. La discusión no es nueva: ¿somos todos los profesores también profesores de lengua? Es un desafío del que difícilmente podemos escapar, ya que la lengua además de ser una materia de estudio también es el vehículo en el que se imparten los contenidos de todas las asignaturas. Con el presente trabajo pretendemos ayudar a los profesores que no imparten lengua como asignatura a corregir los trabajos de sus alumnos. Esta propuesta consta de tres ejes de actuación marcados por un orden de prioridad: prevenir, autocorregir y ayudar.

Palabras clave: *Error, corrección, competencia lingüística, transferencia.*

Abstract

This work is based on comments made by teachers of different subjects to language teachers. Teachers very often not only have to correct the content of their students' works but also the language they use. This isn't a new matter: Are we teachers also language teachers? This is a challenge that we can't easily avoid, since a language is both a subject to study and the vehicle for teaching the different subjects. With this work we intend to help teachers who don't teach language to correct their students' works. This proposal has three steps according to their priority: preventing, self-correcting and helping.

Key words: *Error, correction, linguistic competence, transfer.*

Correspondencia: Kepa Larrea Muxika. Bilboko Irakasleen U.E., Ramón y Cajal, 72. 48014, Bilbao (kepa.larrea@ehu.es).

SARRERA

Hizkuntza irakasleok oro har hiru arlo nagusi jorratzen ditugu: literaturarena, hizkuntzaren didaktikarena eta hizkuntza-komunikaziorako gaitasunarena. Eta hain zuzen ere, azken arlo hori da beste ikasgaietako irakasleei gehien interesatzen zaiena, sarri askotan, beste irakasleek ikasleen hizkuntza gaitasunei eta egiten dituzten akatsei buruz galde egiten baitigute. Lan honek, beraz, beste irakasleen galderak eta kezak ditu abiaburu. Izan ere, irakasleok ikasleen lanen edukiak ez ezik lan horien forma ere zuzendu behar dugu, alegia, eduki horiek azaltzeko erabili duten hizkuntza. Arazo horri buruzko kexak behin eta berriz plazaratzen dira: irakasleok geure irakasgaietz gain, hizkuntza ere azaldu beharra daukagu ala hori filologo eta linguisten zeregin berezia ote da? Geure irakasgaiak azaltzeko daukagun denbora apurra hizkuntzaren irakaskuntzarekin eta hizkuntzaren okerren zuzenketarekin partekatu behar ote dugu ala, aitzitik, geure ikasleen errealitate linguistikoaz abstrakzioa eginez, euren hizkuntza gaitasuna egokitzat hartu ahal dugu? Agerian dugun erronka hori nekez saihestu dezakegu.

Gure ustez, irakasle guztiok jakintzagai bateko irakasleak izateaz gain, neurri batean bederen, hizkuntza irakasleak ere bagara. Eta hori begi-bistako arrazoi batengatik: ikasleek nekez ikasiko baitute ezer hizkuntza jakin gabe, berau baita jakintzagaiaren bitartekaria. Nola jakin, bestela, ikasleek zer ulertu ote duten edo nola eman dezaketen jakintza horren berri? Ez dezagun ahortzi, hizkuntza bat irakasgai bat izateaz gain, komunikazio-tresna ere badela eta beste irakasgaien edukien euskarria eta garraibidea ere bai.

HELBURUA

Tradizioz, hizkuntzaren zuzentasunaz eta egokitasunaz hizkuntzaren irakasleak, hizkuntzalariak eta filologoak arduratu dira, horiek izan baitira hizkuntzaren jagole zurrinak. Horiek ohartarazi gaituzte hizkuntzaren endekapenez, eta horretarako, adibidez, Lazaro Carreteren (2005) edo Ibon Sarasolaren (1997) lanei baino ez diegu erreparatu behar. Ikerlariek era eta jatorri askotako akatsak zerrendatu dizkigute eta hizkuntza irakasleok geure eskoletan ikasleen akats horiek hausnartu eta arteztu behar izan ditugu.

Lan honetarako hasierako hipotesia hauxe izan da: edozein arrazoi delarik ere, ikasleek hizkuntza irakasgaiaren egiten dituzten hizkuntzaren erroreak beste irakasgaietara estrapola daitezke, irakasgai horien ulermena eta lanketa eragozten baitituzte. Hipotesi horretatik abiatuta, halabeharrez, galdera hau egin diogu geure buruari: irakasgai horietako ikasleen arrakasta edo porrota zein puntutaraino egotzi dakioke hizkuntzaren erabilerari edo, bestela, irakasgaien edukien jakintza hutsari? Hortik atera daitekeen ondorioa ezberrik gabekoa da: hizkuntza ez da bakarrik hizkuntzalarien ardura, baizik eta erabiltzaile guztiena eta, kasu honetan, hizkuntza ikerketa eta ikasketa objektutzat ez duten irakasleena ere bai.

Hortaz, egoera konplexu horren aurrean, hizkuntza irakasgai ez duten irakasleei jarraibide bat aurkeztu nahi izan diegu, lagungarri izan dezaten euren ikasleen idazlanak zuzenduz gero. Horrela, bada, proposatzen dugun protokolo edo gida moduko honen bidez zuzentze lan hori arindu nahi diegu.

METODOLOGIA

Jarritako helburuari eutsiz, lan hau, funtsean, sintesi lan bat da, arazoaren ikuspegi orokorra eman nahi dugulako. Baina ez gara sintesi deskriptibo huts batera mugatuko; aitzitik, orain arte egindako lanen irakurketa kritikoa egin nahi dugu sintesi analitikoa eginez. Izan ere, hizkuntzalarien esparru hutsetik atera nahiko genuke hizkuntza erroreen tratamendua.

Orain arte egindako lan gehienek okerra non zegoen eta zein zen erakutsi izan dute, eta, kasurik hoberenean, zein zen hizkuntza formarik zuzenena adierazi ere. Halako lanek, azken batean, galdera biri erantzun diete: ikasleak esaldi okerra nola esaten duen eta nola esan lezake zuzena izan ledin. Ildo horretatik bada oso lan interesgarriak eta sistematizazio onik. Juan Garziak (2005), adibidez, liburuxka txiki batean gazteleratiko kalko okerren berri ematen digu. Bada besterik, ordea, Zubimendiren eta Esnalen *Idazkera-liburua* (1993) ere aipatzekoa da. Beste formatu batean, baina antzeko helburua dutelarik, estilo liburuak aipatu beharko genituzke: IVAP-ena (Arakama et al., 2005), administrazioari dagokionez, eta Berria-rena (Arrarats, 2006) kazetaritzari dagokionez.

Gaur egun, gainera, behin paperaren formatua gaindituta, hainbat errorearen eredu (eta euren zuzenketa) interneten aurki daitezke. Gutxi batzuk baino ez aipatzearren, Maia eta Larrearen *Ehutsi* (2008) daukagu, edota Ixa taldearen *Euskarazko erroreen datu basea* (2005), eta EHUKo Euskara Zerbitzuaren *EHULKU* (2004).

Hala ere, lan horiek guztiek akatsak detektatzen badituzte ere, ez dute inolako metodologiarik proposatzen okerrak zuzentzeko. Esan bezala, forma zuzena zein izan beharko litzatekeen baino ez dute proposatzen eta, sarri askotan, testuingururik ematen ez dutenez, forma hori gramatikalki zuzena izan liteke, baina egokia, agian, ez. Gainera, beti ez dute okerraren jatorria zein den adierazten eta, ondorioz, okerra tratatzeko era ere alda daiteke. Izan ere, itxurazko errore berak etiologia ezberdina izan dezake.

Lan honek zati nagusi bi ditu. Lehenengoan egoeraren hausnarketa bat egingo dugu eta, ondoren, aurreko hausnarketan oinarriturik, hizkuntzaren okerrak zuzentzeko jarraibide zehatza proposatu. Proposamen horri hainbat muga jarri dizkiogu. Batetik ez dugu oso jarraibide luzea egin nahi izan, baizik eta laburra, argia eta egingarria. Eta, bestetik, malgua, hots, irakasleen beharrezkoen arabera egokitu daitekeena.

Muga bi horiek nola edo hala eragotzi ahal dute jarraibidearen ulermena eta zenbait atalek azalpen zehatzago behar izan. Hala ere, praktikotasunari begira, ez ditugu azalpenak gehiegi luzatu nahi izan, eta, informazio gehiago behar izanez gero, ondoan jarritako bibliografiak argitu litzake zalantzak. Bestalde, malgutasunaren kontra, baten batek arau zurrunagoak nahiko litzuke ziurrenik. Baina hau proposamena baino ez da egoera eta irakasgai ezberdinetan erabil daitekeena eta, hortaz, irakasleak berak aukeratu beharko luke noiz zer erabili, beti atal guztiak ez baitira zertan bete.

Hortaz, jarraibide xume honek hiru ardatz nagusi ditu, garrantziaren arabera mailakatuak: aurreikuspena, autozuzenketa eta laguntza. Lehenengo ardatzak,

aurreikuspenak, ikastaldearen errealtate soziolinguistikoa aztertuko luke eta, ondorioz, aurkitu ahal ditugun hizkuntza erroreak aurreikusita, irakasle bakoitzak jarraibide egokia proposatu. Jarduteko bigarren ardatzaren arabera, ikasleek berek egiten dituzten hizkuntza erroreaz konturatu beharko lukete eta, ondoren, errore horiek zuzentzeko proposamenak egin. Bi une horiek dira garrantzitsuenak, eta neurri handi batean irakasleen lana arinduko luketenak. Baina, behin errorea eginda, hirugarren eta azken urratsa bete behako genuke, halabeharrez. Alegia, hizkuntza erroreak zuzentzeko teknika eta zeregin jakinak erabiltzea.

Azkenik, proposamen honen jarraibidearen ildo gehienak edozein hizkuntzaren okerren zuzenketari aplikatu badakioke ere, adibideak euskarari egokitu zaizkio.

ERROREA / HUTSEGITEA

Erroreen arazoa beti egon da irakasleen kezka nagusien artean. Hala ere, erroreen ikuspegian bada aldatetarik. Irakaskuntzaren planteamendu behavioristaren arabera, errorea (=akatsa, hutsegitea) porrot egitearen sinonimoa da, eta horrela hartzeak sarritan erru edo desegokitasun sentimenduak sortzen dizkie ikasle zein irakasleei. Ellis-ek (1994) Brookes-en 1960ko aipu hau dakar: *“bekatua bezala, errorea saihestu egin beharra dago, eta haren eragina gainditu”*. Testuinguru horretan, batzuetan errorearen errua irakasleari egozten dio ikasleak (honek ez du ondo azaldu) edo irakasleak ikasleari besteetan (asko kostatzen zaio ulertzea).

Hirurogeita hamarreko hamarkadan hasi ziren aldatzen ikasleek hizkuntzan egiten dituzten erroreei buruzko ikerketak eta jarrerak. Perisek (1998) honelaxe laburtzen du aldaketa hori:

“Corder (1967), Nemser (1971), Newmark (1966) y Selinker (1972). Ellos introducen la concepción del error como manifestación de la actividad de procesos de aprendizaje, y no como fallo de los mismos” (Peris, 1998, p. 90).

Hortaz, gaur egungo joera kognitiboez hutsegiteak ezinbestekotzat dauzka, ikaslearen ikaste prozesuan. Walz-ek dioenez (1985):

“entseu eta errakuntzaren bidezko orientazioa eskatzen du hizkuntza ikasteak, eta hutsegitea ikaslea arauak, kategoriak eta hauen azpiko sistemak aztertzen ari delako frogatzen da” (Walz-ek dioenez (1985, p. 11).

Erroreari buruzko ikuspegi aldaketa honek errakuntzak zuzentzeko metodologian ere aldaketak ekarri ditu halabeharrez. Batetik ohiko zuzenketa edukiko genuke, azken produktuaren zuzenketa oinarritzen dena, eta, bestetik, zuzenketa berria edo prozesuan oinarritzen dena. Cassanyk honelaxe azaltzen ditu zuzenketa mota bien arteko aldeak:

“Los dos tipos de corrección difieren sobre todo en los objetivos. La tradicional pretende erradicar las faltas de gramática. Su campo de trabajo es la forma de los escritos y se fundamenta en la esperanza -¡relativamente sólida como hemos visto!- de que los alumnos no repetirán las incorrecciones que hayan sido detectadas. En cambio, la alternativa procesal aspira a modificar los hábitos de la composición. Trabaja con

los sujetos mismos, con los alumnos, y pretende formarles como autores” (Cassany, 2006, p. 22).

Aurrera egin aitzin, zera argitu nahi genuke: ez dela gauza bera ikasleak hizkuntzaz daukan ezagutzan akatsa izatea edo ezagutza hori gauzatzeko abildadean akatsa izatea. Argi dezagun, bada, honen inguruko terminologia. Norrishek (1989) erroreak, hutsegiteak eta lapsusak bereizten ditu:

- a) Erroreak desbideratze sistematikoak dira. Ikasle batek errore bat behin eta berriz egiten du, forma zuzena ikasi ez duelako edo ezagutza faltsuren bat duelako. Beraz, ikasleak behar besteko hizkuntza konpetentziarik ez duelako egiten ditu halako erroreak eta bere kabuz ezin ditu zuzendu.
- b) Hutsegitea, berriz, desbideratze aldakorra da: batzuetan ikasleak zuzen egiten ditu esaldiak, baina beste batzuetan, huts eginez, forma okerra erabiltzen du; hau da, arauak badakizki baina ez du bereganatu arauak prozesatzeko behar besteko abildadea. Beraz, performantziari dagozkion hutsegiteak dira eta ikaslea, akatsaz ohartu orduko, bada gauza bere kabuz zuzentzeko.
- c) Lapsusak gizakien mugapenek eragindakoak dira, eta arretarik eza, oroimen laburra edo nekea erakusten dute. Lapsus batek ez du zerikusirik forma jakin bat irakatsia izanarekin edo irakasteko bidean egotearekin.

Kontuan izan behar dugu itxurazko akats berbera, ikaslearen arabera, errorea edo hutsegitea izan daitekeela, eta, hortaz, akats hori zuzentzeko era ezberdinez jokatu beharko genuke bata eta bestearen aurrean. Adibidez, ateka joka badabiltza, etxe barruan dagoen edonork hiru galdera hauek egin ditzake:

- *Nor da?*: Kanpoan nor dagoen jakiteko, atea zabaldu aurretik egiten duen galdera.
- *Nor ote da?*: Nork bere buruari galdetzen badio (galdera erretorikoa), jakin gabe kanpoan nor ote den.
- *Nor izango da?*: Etorkizuneko ekintza adierazteko. Hala ere, “nor ote da?” esan beharrean, gazteleraren eraginez “nor izango da?” erabiltzea errore edo hutsegitea izango litzateke hitzunaren hizkuntza gaitasunaren eta performantziaren arabera.

Hirurak forma aldetik zuzenak badira ere, testuinguru desegokian erabilia okerrak izan daitezke.

ERROREEN ETIOLOGIA

Erroreak nondik datozen jakiteak lehenengo aztarnak erakusten dizkigu erroreen zuzenketa bideratzeko. Era askotako arrazoiek eragin ditzakete ikasleen hizkuntza erroreak eta, beraz, horren arabera jokabide bat edo beste har daiteke. Baina ez dugu ahaztu behar errore berak eragile ezberdinak izan ditzakeela.

Erroreen eragile batzuk hauexek izan daitezke besteak beste: irakasgaia azaltzen den hizkuntzan behar besteko gaitasunik ez izatea (irakasleek zein ikasleek

izan dezakete hizkuntza gaitasun urria); interlingua egoera anitzak gertatzea eskoletan, edota irakasgaiaren beraren eragozpen linguistikoak (lexiko berezia zehaztea eta ulertzea). Iturburu horien artean ezin dugu aipatu barik utzi ikasleen ikasteko ohiturak eta irakasleak erabilitako metodologia. Arrazoi horien guztien artean aipamen berezia merezi dute hizkuntza-transferentzia negatiboek, sarri askotan horiexek baitira hizkuntza batean gertatzen diren errorearen benetako arrazoiak eta ez ikasleen hizkuntza gaitasuna. Interferentzia mota horri dagokionez, ikasleek eleaniztasun maila anitza izan dezakete: ikasle batzuk beste herrialde edo komunitateetatik datozelako edota ikastetxea errealtate eleanitza duen lurralde batean kokatuta dagoelako. Horrez gain, eskoletan hizkuntza arrotzetako testuak erabil daitezke eta horrek itzulpen arazoak sor ditzake, testuaren jatorrizko hizkuntzak nola edo hala beste hizkuntzan egindako itzulpena baldintzatzen duelako.

Arrazoi horiek eta aipatu ez diren beste batzuek ere mota askotako sailkapenak onartzen dituzte. Penadesesek (2003) hainbat sailkapen aztertu zituen, baina horietako batzuk zehatzegiak eta luzeegiak direnez, ez dira batere eraginkorrak gure helburuetarako. Euskaraz ere bada horrelakorik, eta sistematikoenetariko bat Zubirirena (1995) da, berau beste sailkapen batzuen iturria izan baita, hala nola Ixa taldearena (Aldabe et al., 2005). Hala ere, sailkapen gehienak arlo gramatikalei dagozkie, mota horretako erroreak errazago fokalizatzen eta identifikatzen dira eta.

Baina arazoa sinplifikatzearen, irizpide etiologikoari eutsiko diogu, Grymonprez-i jarraiturik (2004) erroreak bi multzotan banatzen baititu: hizkuntzaren barnekoak (intralingualak) eta hizkuntzen artekoak (interlingualak).

Hizkuntza barneko erroreak hizkuntzaren egituraren bertan dute jatorria. Lau multzotan banatu daitezke.

- a) Antzeko itxura duten hitzak (paronimoak): nahiz / naiz; leia / lehia; altzairu / altzaria; haurrez / aurrez / ahurrez / eurrez; ikusi / ikuzi; jaitsi / jetzi; berezi / bereizi; mende / menpe...
- b) Antzeko esanahia duten hitzak (sasi sinonimoak), baina ezaugarri semantiko berberak ez dituzte: dagoeneko / honezkerok; bera / berdin; joaten da / doa; lagun / adiskide; jakintza / ezagutza; noski / jakina; ziur / seguru...
- c) Sasi esapideak: bilera hasi da / *bilerari hasiera eman zaio; trena irtengo da / trena irten egingo da / *trenak irteteari ekingo dio; ez du zer esanik / *ez du zer esatekorik / ez du esatekorik; ez du zertan esan / ez du esan beharrik / *ez du zertan esan beharrik...
- d) Erregistroak eragindakoak: hizkera (jasoa, estandarra, zientifikoa, etxekoa...), euskalkia, soziolektoa edota erregistro ezberdinak era nahasian erabiltzea.

Hizkuntzen arteko erroreak ama hizkuntzaren edo beste hizkuntza batzuen transferentzia negatiboaren (interferentziaren) ondorioz gertatzen dira. Euskal Herrian gaztelerak hegoaldean eta frantsesak iparraldean izugarritzko eragina daukate. Bi arazo mota ager daitezke:

- a) Sasilagunak: *reparar* / erreparatu; *escaso* / eskas; *historia* / istorio; *comedia* / komeria; *campo* / kanpo; *propio* / propio; *decente* / dezente; *gobernar* / gobernatu...
- b) Hizkuntzen arteko erabateko baliokidetasunik ez izatea: *hermano* / anaia, neba; *hacer*, *efectuar*, *realizar* / egin; *pedir*, *exigir* / eskatu; *escritura* / idazketa, idazkera; *mortal* / hilkorra, hilgarria...

Aurrekoetz gain, bada hizkuntzen arteko transferentzia positiboa, ikasketa errazten duena, eta hizkuntza bien lexikoa eta egiturak berdinak direnean gertatzen da.

Azaldutako etiologia mota horretatik era askotako erroreak agertzen zaizkigu:

- Mezu iluna egitea
- Hautaketa okerra egitea
- Hitzen arteko loturarik eta orden logikorik ez izatea
- Noizean behineko akatsak
- Behin eta berriz egiten diren akatsak
- Irizpideen araberako akatsak (gramatikalak, fonologikoak, ortografikoak, morfologikoak, sintaktikoak, lexikoak, pragmatikoak, komunikatiboak...)
- Zerbait ez jartzea
- Behar ez dena jartzea
- Esaldian okerren bat egitea
- Eskualde bateko akatsak
- Gizatalde baten akatsak
- Norberaren akatsak
- Akats orokorrak
- Akats puntualak
- Sortarazitako erroreak
- Irakaslearen metodologiak eragindako erroreak

IKAS-ESTRATEGIAK

Beste askoren artean, hizkuntzaren erroreek agerian uzten dituzte ikasleen gabeziak eta, beraz, ikasleek erabiltzen dituzten ikas-estrategiak ere bai. Ikasleen ezinak gainditzeko martxan jartzen diren eragiketak dira estrategiak, hain zuzen ere. Ikasleek bere kasa ikasten aritzeko gauza izatera heltzeko, ikasten jakin beharko luke, eta bere kasa ikasteko bidea emango dioten mekanismo batzuk erabiltzen ikasi. Mekanismo horiei ikas-estrategiak deritze; ikasleari errazago ikasteko bide emango dioten prozesuak dira, eta ikastea errazago, azkarrago, atseginago eta eraginkorrago izan dadin ekintza jakin batzuk dira.

Estrategiak oro har eta ikas-estrategiak zehazki era askotan sailkatu dira: Oxford (1990), Nunan (1995), Celce-Murcia eta beste (1998) edo Cyr (2000). Konparazio baterako bertan Cyr-enak (2000) baino ez ditugu labur-labur eskainiko, honek Oxfordi jarraitzen baitio:

- 1. Zeharkako estrategiak.** Ikaskuntza oro har antolatu eta ebaluatzekoak. Ikasleari gero eta autonomoagoa izaten lagundu behar bazaio, ikas-prozesuak

ez du ikasgelari eta irakasleari estu-estu loturik egon behar.

a) *Estrategia metakognitiboak*. Ikasleak bere ikaskuntza kontrolatu eta gauzatzeko modua ematen diotenak dira: ikaskuntza-helburu berriak ezartzea, jardun jakin bat burutzeko behar diren baliabideen plangintza, egindako aurrerapenen ebaluazioa, etab.

b) *Estrategia afektiboak*. Emozioak, motibazioak eta jarrerak arautzen dituzte: kontrako emozioak kentzea, norbere burua adoretzea, etab.

c) *Estrategia sozialak*. Elkarreraginaren bidez errazten dute ikastea: solaskideari argibideak eskatzea eta egiaztatzea, besteekiko lankidetzeta eta tolerantziatzeko jarrerak (kultura / ideologia).

2. Estrategia zuzenak. Ikas-prozesuan hizkuntzarekin lotura duten arazoei irtenbidea ematekoak dira: informazioa lortzeko, gordetzeko eta erabiltzeko.

a) *Oroimen-estrategiak*. Informazio berria gordetzen eta berreskuratzen errazten dutenak.

b) *Estrategia kognitiboak*. Hizkuntzaren manipulazioa eskatzen diote ikasleari eta hizkuntza mezuak ekoiztu eta ulertzen lagunduko diote: arrazoibide inductibo eta deductiboak, itzulpena eta testua entzun edo irakurri bezain laster ideia nagusia edo mezuaren xedea atzematea.

c) *Konpentsatzeko estrategiak*. Helburu komunikatibo bat lortzearren hutsuneak edo akatsak konpontzeko erabiltzen diren estrategiak.

OKERRAK ZUZENTZEKO ZENBAIT TEKNIKA

Errore eta hutsegiteak aurreikusteko eta saihesteko ahaleginak eginda ere, beti ez da emaitza onik lortzen eta akats horiek fosildu ez daitezten ahalegin berezia egin beharra dago. Beraz, okerrak zuzentzeko edozein aktibitate proposatuta ere, Grymonprezek dioenez (2004), irakasleok hainbat irizpide kontuan hartu beharko genituzke:

- a) Ikaslearen autonomia garatu: berak ikasketaren erantzukizuna izan dezan.
- b) Ikasle bakoitzari bere irtenbidea erraztu: erroreak era pertsonalizatuan tratatu behar dira, guztiek akats berberak egiten ez dituztelako.
- c) Eguneroko jardueretan txertatu: ikasleak egiten dituen lanetan oinarritu behar da errorean trataera, etekina berehalakoa izan dadin.
- d) Benetako zuzenketa gerta dadin errore bera egoera ezberdinetan tratatu.

Horiek horrela, Cassanyri (2006), Grymonprezi (2004) eta Walzi (1985) jarraituta, azken ondorioak azaldu baino lehen, hizkuntzaren okerrak zuzentzeko zenbait teknika gogorarazi nahiko genituzke labur-labur, irakasleek beren beharrezan araberako egokitu eta erabili ahal dituztenak:

1. Portfolio batean ikasleak egindako eta zuzendutako lanak bildu berrikusteko, kontsultatzeko eta bere bilakaera aztertzeko.
2. Lexiko berria ikasleak jaso eguneroko edo bitakora batean: hitz bereziak, interesgarrienak, gakoak....

3. Interneten bidezko baliabideak erabili, batez ere feedbacka eskatzen dutenak.
4. Web-Bloga sortu ikaskideen artean bertan lan egiteko: idazlanak jarri, ideiak azaldu, eskolako gorabeherak, ebaluazioen berri, eztabaidak...
5. "Eguneko errorea" eskolan landu: ikasleek usu egiten duten akatsen bat irakasleak aukeratuko du, eta zertan datzan azaldu ondoren konponbideak bilatzeari ekingo diote.
6. Ikasleek akats baten konponbidea topatu ezean irakasleak zantzuak (hitz gakoa, keinuak, parafrasia, ama-hizkuntza...) eman ikasleek zuzenketa egokia aurkitu arte.
7. Ikasleen arteko idazlanen trukaketa egin, ikaskideen lanen berri izan dezaten.
8. Ikasleek egindako zuzenketen trukaketa: batak besteari zuzendu.
9. Klaseko zuzenketa: pantailan proiektatu idazlana elkarrekin denek ikus eta zuzen dezaten.
10. Talde-lana: talde txikitian idazlanak egin (antolamenduak erabaki, ideiak proposatu, esaldiak aukeratu, esanahia eta idazketa negoziatu...).
11. Ikasleen lanen aurkezpenak eta parte hartzeak grabatu, ahozkotasuna lantzeko.
12. Hutsegiteen artxiboa sortu: irizpide anitzen arabera erroreen sailkatzea eta konponketak proposatzea.
13. Idazkera eredugarrien artxiboa sortu: esaldi eredugarriak, gidoiak, esamoldeak, laginak.
14. Irakasleak zuzendutako testua ikasleek berregin dezatela.
15. Ikasleekin negoziatu zer zuzendu eta zuzenketa nola adierazi.
16. Kontrol zerrendak erabili: alde zuzentzeko erabakitako prozedura eta irizpide batzuen arabera, lanak urratsez urrats egin eta berrikusi.
17. Erabilitako testuak hizkuntza bitan daudela, testu bera modu ezberdinez itzuli.
18. Irakasgaiaren edukiak lantzeko testuak hizkuntza bakar batean egonez gero, testu bera modu ezberdinez berridatzi edo azaldu.
19. Idazketa tailerra landu. Lan-taldeak hizkuntza ere lantzeko erabili daitezke: ideiak ahalik eta garbien nola azaldu taldekideen artean adostu, azken lana egiteko idazteko estrategiak denen artean erabaki...
20. Ikasleekiko elkarriketak egin.

Esan bezala, horiek guztiak orientabide batzuk dira. Azken batean, nork bere irakasgaiaren hizkuntzaren lanketari tarte bat eskaintzeko estrategiak baino ez dira, kontuan izanik hizkuntza menderatzeak irakasgaia menderatzea errazten duela.

AZKEN HAUSNARKETAK ETA IRADOKIZUNAK

- a) Ikasleen hizkuntz hutsegiteak eta erroreak bereizi beharra dago, lehenengoak ikasleak berak zuzen ditzake eta, bigarrenak, berriz, hizkuntza konpetentzia handiago duen beste batek lagundurik.
- b) Erroreek eta hutsegiteek bere balioa eta larritasuna testuaren barruan hartzen dute eta ez testuingururik gabeko esaldi solteetan.

- c) Hizkuntza irakasleek ez ezik irakasle guztiok daukagu hizkuntzaren erabilera zuzena eta egokiaren ardura.
- d) Irakasle guztiok irakasgaia hobeto ulertzearren eta lantzearren, hizkuntzaren erabilera zuzena eta egokia txertatu behar dugu eskoletan eta hartara erabiltzen dugun metodologian.
- e) Hizkuntza akatsei aurrea hartzeak ez du esan nahi akatsak erabat saihestea.
- f) Orain arte egindako ikerlan eta sailkapen gehienek esaldiaren barruan gertatzen diren hizkuntza erroreak aztertzen dituztenez, beharrezkoa da testuaren barruan agertzen direnak ere ikertzea, sailkatzea eta hobetzeko proposamenak egitea.
- g) Erroreen zuzenketak lantzeko metodologiak, teknikak eta prozedurak (*zuzenketa nola egin beharko litzatekeen*) landu beharra dago, ez baita nahikoa errorea detektatzea (*ikasleak nola esaten duen*) eta adibide eredugarriak eskaintzea (*ikasleak nola esan beharko lukeen*).
- h) Errore bat erakustea beharrezkoa bada ere, ez da arrazoi nahikorik ikaslea horretaz ohar dadin eta jokabidea alda dezan. Horrez gain errorea zuzentzeko prozedura bat ere eskaini behar zaie eta landu behar dute.
- i) Irakasleek errorea tratatzeko jarraibide bat diseinatu beharko lukete ikastaldearen eta irakasgaiaren ezaugarrien arabera. Jarraian jarraibide horren ildo nagusiak diseinatzeko proposamen bat baino ez da eskaintzen, malgua eta laburra irakasleen beharrianen arabera egokitzeko.

OKERRAK ZUZENTZEKO JARRAIBIDE BATEN PROPOSAMENA

1. Aurreikuspena: Irakaslearen zereginak

1.1. Zeregin orokorrak

- Ikastaldearen egoera soziolinguistikoaz jabetu: diagnostikoa egin
 - Ikasleen hizkuntz gaitasun urria
 - Beste herrialdeetako eta komunitateetako ikasleak
 - Euskal Herriko errealitate soziolinguistikoa: eleaniztasuna
- Erabilitako metodologian arlo horren hizkuntzaren berezitasunak kontuan hartu
 - Hizkuntzaren eredu argiak eskaini
 - Lexikoa egoera jakinetan azaldu (testuinguruan jarri)
 - Kontsultatzeko iturriak eskaini

1.2. Itzulpenak prestatu

- Itzulpenaren berezko zailtasunak: itzulpen arazoak kontuan hartu (nola esan behar dudan euskaraz erdaraz hala esaten dena)
- Interferentzia negatiboez ikasleak ohartarazi (interlingua, kalko okerrak, sasi-lagunak). Kontuan hartzeko interferentziaren eraginez ager daitezkeen oinarriko zenbait elementu:

Perpaua barneko elementuak

- Mugatua / Mugagabea
- Singularra / Plurala
- -RIK partitiboa
- Erdarazko preposizioak
- Atzizkien erabilera
- Aditz komuntzadura
- Orainaldia / Geroaldia

Paragrafo barneko elementuak

- Aspektua: -TU, -TZEN, KO
- Hitzen ordena: galdegaia
- Erdarazko gerundioa
- Erlatiboa: murriztailea / esplikatzailea
- Erlatiboa / Konpletiboa
- Nominalizazioa

1.3. Azterketak

- Azterketa hasi aurretik:
 - Argibide zehatzak eman, adibideak jarririk
 - Galderak ondo zehaztu: zer esan/egin ahal duten eta zer ez
- Azterketak zuzendu ondoren, ikasleekin batera:
 - Azterketari buruzko hausnarketa egin: zer erantzun behar izan duten, zergatik erantzun batzuk ez diren zuzenak/egokiak izan
 - Agertutako hizkuntzaren akatsei buruzko hausnarketa egin: hizkuntza akats batek zer puntutaraino baldintza dezake kontzeptuaren ulermena (zer esan nahi izan duten eta, egiatan, zer esan duten)

2. Autozuzenketa: Ikaslearen zeregina

2.1. Nola egin: elkarlana

- Ikasle bik egindako lanak elkarri zuzendu
- Ikastaldearen zuzenketa
- Kontrol zerrenda erabili

2.2. Azterketak

- Galderen enuntziatuak arretaz irakurri: zer galdetzen duten, zer idazki mota garatu behar den (eskema, sintesia, iruzkina...)
- Idazteko prozesuari erreparatu:
 - Informazioa aukeratu
 - Idazkia egituratu
 - Idazkia gauzatu
- Azterketa berrikusi (kontzeptuzko eta hizkuntzako akatsak):
 - Irakurri
 - Esaldiak berregin (behar direnetan)
 - Ahaztutako hitzak jarri, utzitako hutsuneak bete...

2.3. Ikasteko ohiturak / estrategiak

- Egitura gramatikalak bildu eta sistematizatu
- Ikasle bakoitzak bere glosategia sortu
- Hitzak kategorien arabera antolatu
- Hitzen definizioak hiztegietan egiaztatu
- Hitz berriak gogoratu ahal izateko, testuinguruan txertatu

- Mapa semantikoak egin
- Testuetako hitz gakoak aurkitu
- Eskoletako eztabaidetan parte hartu
- Aurretiaz zuzendutako lanak tarteka berrikusi
- Oharrak hartu, laburpenak egin
- Laguntza eskatu
- Ulertu ez denaz azalpenak eskatu
- Egin beharreko lanak antolatu eta planifikatu
- Elkarlanean aritu
- Argibideei jarraitu
- Egindako akatsei etekina atera
- Ezagutza berrien eta aurrekoen arteko lotura bildu
- Izpiritu kritikoa garatu
- Noizean behin ikasitakoa aztertu eta berrikusi
- Hipotesiak egiaztatu

2.4. Zeri erreparatu (idazlanetan, azterketetan):

- SINTAXIA:

(Zer ez egin)

- Esaldi luzeegiak
- Hitzez hitzezko itzulpenak
- Subjektua eta aditza elkarrengandik urrundu

(Zer egin)

- Mezua (idea) itzuli, eta ez “hitzak” soilik
- Aditz nagusia aurreratu
- Esaldi koordinatu gehiago eta mendeko gutxiago erabili
- Erdarazko esaldi luzeegiak zatitu (gaztelerazko esaldi luzeegi bat itzulpenetan esaldi bitan eman)
- Esaldien arteko juntagailu gehiago erabili
- Esaldi barruan tartekiak erabili (pausaldiak)
- Bi galdera hauei erantzun: zer esan nahi dut? nola esan behar dut?
- Puntuazio ikurrei erreparatu
- Aditz-lagunak, izenordeak eta erakusleak erabili

(Kontuz erabili)

- Birdeklinabidea
- Perifrasiak
- Atzizkien bidez osaturiko substantiboak (askotan aditz nominalizazioa egokiagoa da)

- LEXIKOA:

- Irakasgaiaren glosategi eta hiztegi berezitua erabili:
 - Euskalterm: http://www1.euskadi.net/euskalterm/indice_e.htm
 - Elhuyar:
<http://www.elhuyar.org/hizkuntza-zerbitzuak/EU/Hiztegi-kontsulta>
 - Zientzia eta teknologiaren hiztegi entziklopedikoa:
<http://www.zientzia.net/hiztegia/index.asp>
 - Komunikazioaren glosategia:
<http://komunikazioglosategia.pbwiki.com/>

- Ingurumen hiztegia:
http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-11413/eu/contenidos/informacion/hiztegi/eu_aplic/indice.html
 - Corpusak erabili:
 - Ereduzko prosa:
<http://www.ehu.es/euskara-orria/euskara/ereduzkoa/>
 - Euskararen corpusa: <http://www.euskaracorpora.net/XXmendea/>
 - Zientzia eta teknologiaren corpusa:
<http://www.ztcorpusa.net/cgi-bin/kontsulta.py>
- ORTOGRAFIA

- Programa informatikoetako zuzentzaile ortografikoak erabili: Xuxen (Microsoft Office, MAC Word, OpenOffice)
- WEBetako zuzentzaile ortografikoa erabili:
- Euskaraz: <http://www.xuxen.com/>
- Hamaika hizkuntzatan: <http://www.correctorortografico.com/>

3. Laguntzeko teknikak: Ikasleen eta irakaslearen zereginak

3.1. Zeregin orokorrak

- Ohiko hutsegiteen erregistroa sortu
- Irakaslearekin elkarlanean idazkiak ahoz zuzendu
- Ikasleei autozuzenketarako baliabideak eta aholkuak eman
- Behin behineko idazkiak zuzendu, behin betikoa egin baino lehen
- Zuzenketaren kalitateari erreparatu eta ez hutsegite kopuruari
- Ikasleei akatsa non dagoen erakutsi eta konponbidea berak proposa dezala eskatu
- Eskoletan eman astia ikasleek egindako zuzenketak irakur eta azter ditzaten
- Ikasleen eginberri dituzten lanak zuzendu eta ez aspaldikoak
 - Ez zuzendu guzti-guztia eta eten gabe ikasleei, horrek ikaslearen autonomiaren kontra joko bailuke, irakaslearekiko menpekotasuna areagotuz.
 - Zuzenketan testu osoari erreparatu (koherentzia, kohesioa, egokitasuna, zuzentasuna) eta ez bakarrik esaldi barruko akatsei

3.2. Idazketa prozesuaren atal guztiei erreparatu eta ez emaitzari bakarrik:

- Komunikazio egoera:
 - Idazkia norentzat den, irakurlea nolakoa den
 - Zer lortu nahi den
 - Zer dakigun gaiaz
 - Idazleak nola aurkeztu nahi du bere burua
- Ideiak sortu
 - Ideien zurrunbiloa
 - Galderak elkarri egin
- Ideiak antolatu:

- Sailkatzeko zerrendak, argibideak, taldeak egin
 - Kontzeptuen mapa egin
 - Ideogramak
 - Zenbakien bidezko eskemak
 - Eskema mailakatua: kortxeteak, giltzak...
- Idazketa:
- Hizkera eta trataera mota aukeratu
 - Esaldiak aukeratu
 - Ideiak elkarlotu egitura baten arabera
- Berrikusketa
- Testua ulerterrazago bihurtu
 - Gramatika eta ortografia berrikusi
 - Testua ozenki berrirakurri
 - Irakurketa kritikoa egin
 - Zenbait pasarteri erreparatu

3.3. Zuzenketa:

- Noiz: lanak egin bitartean eta ez handik hainbat egunetara
- Zer
- Mezua bera bihurritzen dutenak
 - Mezuaren ulermena eragozten dutenak
 - Bereziki landu nahi diren atalei dagozkienak
 - Behin eta berriz egiten dituzten akatsak
 - Fosildutako erroreak
- Nola:
- Zuzenketa arazoak gainditzen laguntzeko dira eta ez ikasleak mintzeko edo etsitzeko
 - Mezuari eta formari erreparatuta
 - Elkarlanean ikasleen artean eta irakaslearekin batera
 - Irakasleak erantzuna era zuzenean eman barik: keinuak, iradokizunak eta galderak eginez
 - Testua berreginez
 - Azken emaitzari itxaron gabe bitarteko lanak zuzenduz

Erreferentzia bibliografikoak

- Aldabe, I., Arrieta, B., Díaz de Ilaraza, A., Maritxalar, M., Oronoz, M. y Uria, L. (2005). Propuesta de una clasificación general y dinámica para la definición de errores. *Revista de Psicodidáctica*, 10(2), 47-60.
- Arakama, J. R., Arrieta, A., Lozano, J., Robles, J. M. eta Urrutia, R. M. (2005). *IVAPEko estilo liburua*. Donostia: Ivap.
- Arrarats, I. (2006). *Berria. Estilo liburua*. Donostia: Berria.
- Cassany, D. (2006). *Reparar la escritura*. Barcelona: Grao.
- Celce-Murcia, M., Dörnyei, Z. eta Thurrell, S. (1998). Gaitasun komunikatiboa: asmo pedagogikoez sortutako eredu bat, osagaien edukiak zehaztuta. *Hizpide*, 41, 59-89.
- Cyr, P. (2000). *Estrategiak bigarren hizkuntza baten irakaskuntzan*. Donostia: HABE, Itzulpen Saila.
- Ellis, R. (1994). *The study of second language acquisition*. Oxford: O. U. P
- Euskara Zerbitzua (2004). *Ehulku*. EHU. <http://www.ehu.es/ehulku/> (Kontsulta: 2009-01-10).
- Garzia, J. (2005). *Kalko okerrak*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzia.
- Grymonprez, P. (2004). Prevención y corrección del error léxico. *Mosaico*, 14, 17-22.
- Ixa Taldea (2005). *Erreus: Euskarazko erroreentzako datu basea*. IXA. <http://ixa.si.ehu.es/Erreus> (Kontsulta: 2009-01-10).
- Lazaro Carreter, F. (2005). *El nuevo dardo en la palabra*. Madrid: Alianza.
- Maia, J. eta Larrea, K. (2008). *Ehutsi. Euskara hobetzen*. EHU-UPV. <http://www.euskara-erretoreordetza.ehu.es/p267-shehuthm/eu/> (Kontsulta: 2009-01-10)
- Norrish, J. (1989). *Hizkuntza ikasleen erroreak*. Donostia: HABE.
- Nunan, D. (1995). *Hizkuntzak irakasteko metodologia*. Donostia: HABE.
- Oxford, R. L. (1990). *Language learning strategies: what every teacher should know*. New York: Newbury House.
- Penadés, I. (2003). Las clasificaciones de errores lingüísticos en el marco del análisis de errores. *Linred: Revista electrónica de lingüística*. http://www2.uah.es/linred/articulos_pdf/LR_articulo_10052004.pdf (Kontsulta: 2009-01-10).
- Peris, E. M. (1998). El profesor de lenguas: papel y funciones. En A. Mendoza Fillola (Coord.), *Conceptos clave en didáctica de la lengua y la literatura* (pp. 87-100). Barcelona: Horsori.
- Sarasola, I. (1997). *Euskara batuaren ajeak*. Irun: Alberdania.
- Walz, J. C. (1985). *Hizkuntza arrotzetako hutsegiteak zuzentzeko teknikak*. Donostia: HABE.

Zubimendi, J. R. eta Esnal, P. (1993). *Idazkera-liburua*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

Zubiri, I. eta Zubiri, E. (1995). *Euskal Gramatika Osoa*. Bilbao: Didaktiker.

Kepa Larrea Muxika, EGBko irakaslea, Euskal Filologian lizentziatua eta Historia Garaikidean doktorea da. Bilboko Irakasleen UEko irakaslea, Hizkuntza eta Literaturaren Didaktikaren Sailean. Bere ikerkuntzaren ildo nagusia hizkuntzaren didaktikaren inguruan kokatzen da. *Tantak*, *Hizpide*, *Gerónimo de Uztariz* eta *Euskalingua* aldizkarietan argitaratu ditu bere lanak. Horrez gain monografia bi kaleratu ditu: *Nola atera EGA euskara jakin gabe eta Euskalduntzearen atakan*.

Fecha de recepción: 15/12/08

Fecha de admisión: 25/02/09